

Korrika 24, omenaldia

ERRIGORAREN DISKURTSOA

2025/01/31 - Durango

IRATI:

Egun on denoi. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiogu Korrikari, bere 24. edizio honetan Errigoraren lana omentzeagatik. Ekimen gutxik daukate urtetik urtera herri honen grinari bizirik eusteko gaitasun magiko hori, eta dudarik gabe, Korrika da horietako bat. Eta nola ez, Errigorako kideongan ere eragiten ditu bizipoz eta harrotasun horiek edizi orotan.

Eragile omendua izateak, aurtengo Korrika are bereziagoa bilakatzen du Errigorako kideontzat. Omenaldi hau jasoko genuela jakiteak izugarriko ilusioa sortu zuen gu guztiongan: Euskal Herriaren luze-zabalean herriz herri lan nekazezinean dabiltzan sarekide horiengan, batzordeetan parte hartzen dugun kideongan, gure ekoizleengan eta nola ez, Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko txoko guztietan euskara sustatzeko lanean ari diren lagunengan ere bai.

Errigorak dozena bat urte daramatza dagoeneko martxan. Baina ez pentsa gure asmoa erritmoa azkartzea denik: pausoz pauso ari gara lanean, handiarekin itsutu beharrean, begirada etengabe txikitasunean paratuz; poliki agian, baina letra txukunaz idatzi nahian. 2013an hasi ginen Errigoraren komunitatea ehuntzen, Argia Ikastolaren alde abiatu genuen *Euskarari Puzka* proto-kanpaina hari esker. Hark utzi zigun ahozapore gozoari esker izan genuen berriz ere ur handietan sartzeko adorea. Zapore horren erantzule izan ziren hasieratik, auzolanari tiraka, boluntario-lanik finena egitera ausartu ziren ehunka sarekide horiek, euskarak Euskal Herriko lurraldeen arteko elkartasuna behar zuela hasieratik ulertu zuten herritarrak. Errigoraren funtsezko pieza zarete sarekideok, ezinezkoa egia bihurtzen duzuenok. Askotarikoa da gure sarea, eta horrek ematen dizkio balioa eta indarra. Badira euskaltzale amorratuak, elikaduraren auziaren gaineko kezkatik lotzen direnak, ikastoletako langileak, eta, nola ez, AEK-ko kideak ere bai. AEKk eta Errigorak hasieratik egin dugu bidea elkarrekin, elkarri lagunduz baina baita elkarrekin adostu ditugun ortzi-mugetara bata bestearen eskutik aurrera eginez. Hortaz, gaurkoa bada zuentzako omenaldia ere.

Dagoeneko sobera dakigu Nafarroa erdialdean eta hegoaldean euskararen auziak nolako garrantzia duen; hortaz, hamahiru urteren ondoren, *Euskarari Puzka* kanpaina bultzatzen duen beharrezana hortxe daukagu, bizi-bizirik: euskara ikasi eta euskaraz ikasteko aukera indartu, eta jende, belaunaldi edo herri berrietara zabal dadin; baina baita euskara jaso duten euskaldun horiek eskola, ikastola eta euskaltegietatik harago, arnasteko aukera izan dezaten. Asmo horri tiraka sortu genuen Agerraldia 2019an: bertatik bertara eragiteko, Ager zonako herri eta kaleetara euskara eramateko. Hamaika euskara-egun, *jolasteka*, kirol-ekimen, kale-izendapen eta jaialdiren hazia landatzen dabilen lantalde horri gure berotasun guztia bidaltzen diogu.

ADRIANA:

Eta ez horiei bakarrik; ezinezkoa litzatekeelako Errigora, bititza bera bezala, lurra lantzen duten herritar horiek gabe. Ekoizleei esker baita Errigora, eta baikara gutako bakoitza. Hamahiru urte hauetan ontzi txiki honetara batu diren ekoizle horiei guztiei ere aitortza egiteko une egokia izan daiteke honakoa. Kontsumitzaileok eman diegun bezain beste jaso dugulako guk bueltan, eta elkarren arteko loturak sendotzea amesten dugulako jarraitzen dugu kanpainaz kanpaina lanean, baita horietatik kanpo ere.

Zuei esker ikasi dugu noiz eta nola jasotzen diren zainzuriak Lizarraldean, edo/eta Bardetan ere arroza ekoizten dela; Euskal Herrian olibondoak ere badaudela, eta baita bereziki bertako barietateak ere. Uzta txar batek sortzen duen larrialdia elkarrekin bizi dugu orain, eta elkarrekin saiatzen gara hari aurre egiten. Zuei esker ekarri dugu “Euskal Herriko baratza” esaten zaion Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko lurra gure etxeetako sukalderraino, eta sartu izan gara gutako zenbait zuen kontserba etxeetako produkzio-lerroetaraino. Hantxe ikusi ditugu herriko hainbat emakume, arte handiz, zainzuriak zuritzen eta pikillo piperrak garbitzen.

Hainbat erpin ukitzen ditu Errigora proiektuak: euskara, elikadura eta auzolana helburu, Ager zona ardatz eta Euskal Herriko lurraldeen arteko elkartasuna lanabes. Hamaika forma daude gurea dugun herri hau egiteko, eta Errigorak bere aletxoak landatu zuenetik denbora dezente pasatu den honetan, omenaldi hau zuentzat dela jakin dezazuen nahiko genuke: noizbait edo kanpaina oro gurekin bat egin duen kontsumitzailea, herrian auzolanean ari den sarekidea, hamaika bilera luze “jan” dituen batzordekidea, ekoizlea, lehengaien sortzaile den nekazaria, euskaltzale nekazaria... Eskerrik asko egiten duzuen lan handi honengatik.

Erronka handiak ditugu parean. Gizartearen joerek zer dakarten erreparatuz gero, ameslarion ikuspegiak ere erraz lausotzen dira. Baina euskaldunok aspaldi erakutsi dugu, grina tartean badago behintzat, gai garela ezinezkoak diruditen helmuga asko gurutzatzeko. Erronka berriek indar eta grina handia beharko dutelako, zain ditzagun geure burua eta ingurua.

Gaurkoa horren adibide argia dugu; har dezagun behar bezalako omenaldia bazkari on batekin, merezi dugu-eta. Horrela beraz, segi dezagun auzolanean, euskara loratzeko Agerreko lurra ureztatzen eta Euskal Herria elikaduraren alorretik burujabeago bihurtzen. Gora Errigora! Gora AEK! Eta gora Korrika!